

Zenbait ohar J. P. Ulibarriren lexikografia lanez

KOLDO ULIBARRI ORUETA *

**RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT**

El escritor J. P. Ulibarri nació en Álava (exactamente en Okendo). La obra de este escritor vasco no se ha analizado a pesar de la escasez de escritores que hay en Álava. Su principal trabajo es el manuscrito “Gutun-liburua (libro de cartas)” cuyo facsímil fue editado por la Diputación Foral de Álava en 1975. En dicha obra, entre versos y cartas (dirigidas a personajes ilustres de la época), el escritor nos presenta un breve diccionario euskera-castellano. En nuestro trabajo hemos tratado de encontrar las fuentes de ese diccionario y tras observar las diferencias de dichas fuentes hemos tratado de averiguar las características del habla del escritor.

J. P. Ulibarri Araban jaiotako (Okendon, zehazki) euskal idazle bat dugu, eta Araban idazle gutxi egon arren, bere obra landu gabe geratu da. Bere lan nagusia Gutun-liburua eskuizkribua dugu, 1975.ean Arabako Foru Aldundiak faksimilean argitaratu zuena. Bertan, bertso eta gutunen artean (garaiko pertsonaia garrantzitsuei egindakoak), hiztegi labur bat erakusten digu euskara-erdara urrenkeraz. Gure lanean hiztegi honen iturriak aurkitzen saiatu gara; eta hauen ezberdintasunak ikusirik, idazlearen mintzoaren ezaugarriak ateratzen saiatu gara.

The writer J.P. Ulibarri was born in Alava (specifically in Okendo). The work of this Basque author has never been studied despite the dearth of writers from this province. His principle work is the manuscript “Gutun-liburua (libro de cartas)”, the facsimile of which was published by the Provincial Council of Alava in 1975. In the said work, between verses and letters (written to illustrious personages of the period), the writer presents us with a brief Basque-Spanish dictionary. In our study, we have endeavoured to find the sources of the dictionary and, given the differences existing between these sources, to discover the characteristics of the writer’s language.

**PALABRAS CLAVE
HITZ GARRANTZITSUAK
KEY WORDS**

Euskera, lexikografia, Álava, Jose Paulo Ulibarri, Gutun-liburua.

Euskara, hiztegi gintza, Araba, Jose Paulo Ulibarri, Gutun-liburua.

Basque, lexicography, Alava, Jose Paulo Ulibarri, Gutun-liburua.

* “Sancho el Sabio Fundazioa”
IX. Unibertsitate mailako
ikerketa lehiaketaren irabazlea

1.1 *Aurkezpena*

Lan hau egitera bultzatu nauena Ulibarriren gainean dauden ikerketa gutxiak izan dira. Arabako euskaraz dauden datu eta testu apurrak kontutan harturik –ikus baiden ez da behar Knörrek eta Zuazok atonduriko liburua (1998)-, ez dut ulertzen zergatik ez zaion arreta gehiago ipini Okondoko euskararen analisirako hain garrantzitsu izan daitekeen testigantza honi.

Lan honen nondik norakoak eta bere balioa aztertzeke lehenengo eta behin esan behar dut hau ez dela ikerketa sakon eta orokor bat izango, baizik eta Ulibarriren lexikografi alderdirako hurbiltze bat, bere alderdirik ezkutuenetakoa baita. Hau dela eta momentu batzuetan arazoan azalean baino ez naiz gelditzen.

1.2 *Lan moldeaz*

Lan hau egiteko erabili dudana hiztegia Ulibarriren *Gutun-liburuan* agertzen da (hemendik aurrera *GL*). Erabili dudana alea Arabako Aldundiak 1975ean argitaraturiko faksimilea izan da (kontuan izanik hiztegiko orrialde bat falta dela), eta hiztegiaren lagintzat A eta T letrak hartu ditut. A letra hartzeko arrazoia hedadura da (5 orrialdekoa, 295 sarrera bi zutabetan ipiniak eta 485 hitz; hau da, hedadura handiko letra dugu) eta duen eransketa kopuru handia (askotan gehiago esaten digute eransketek beste ezerk baino); T letra Ulibarrik erabilutako lan modua aztertzeke hartu dut, aldatu zezakeelako hiztegia aurreratu ahala. Letra gehiago ez ditut hartu lan honen helburuek ez dutelako azterketa sakonago bat eskatzen, baina noizbait egin beharko litzateke.

GL-ko hitz bati egindako aipamenetan Patxi Galék (2003) darabilen izendatzea erabiliko dut, e. g. *Auhendu 5β*: zenbakiak hiztegiko zein orrialdetan dagoen azaltzen du (lehenengo orrialdetzat hiztegiko hasiera harturik, eta ez liburuaren hasierako orrialdea) eta letrak orrialdeko zein zutabetan.

Ulibarri bere garaiko pertsona dugu: ez zen euskara maitatzeaz konformatzen eta garaiko euskal munduan zeuden pertsonaia garrantzitsuekin harremanak izan zituen. Bere gutuneria ikustea baino ez dugu, nola Erro ministroa, Izueta idazlea eta Mendizabal inprimatzaile tolosarra, Bizkaiko diputatu eta batzarkideak, guda-gizonak, fraileak (Luno, Zabala...) bezalako gendeari bidalitako gutunak (Akesolo 1962c: 134. or) eta hauen erantzunak dauden gure *GL*-an; bestalde Akesolok dioskunaren arabera Bixenta Mogeekin zuzeneko harremanak izan zituen: *yakin daigun Yose Paulok bere kartak bere ñnoz «Doña Vicenta» horrerri emon eutsozala zuzendu eta orraztuteko* (Akesolo 1962c: 134. or).

1. SARRERA

2. ULIBARRI LEXIKOGRAFO

Ulibarrik euskarak gizartearen eguneroko bizitzan sartzea nahi zuen; horretarako eskoletan euskara irakatsi beharra ikusi zuen eta honek aurrera egin zezan gramatika eta hiztegi bat egin behar zela deliberatu zuen. Horretaz aparte, bere ekinaren fruitu izan zen Bizkaiko Batzarrak adostu zuen legea: “que diariamente se trajese a la junta en lengua vascongada por escrito el extracto del acta de la sesión precedente” (Akesolo 1969a: 90. or.)

Ulibarri bizi izandako garaia “Astarloa eta Mogelen” garaia deritzo Justo Garatek (Akesolo 1976: 171. or.), eta bere uhara jarraituz, Ulibarri sartu behar genuke binomio horretan, Akesolok dakartzan arrazoiak direla medio:

Ulibarri tiene, sobre Mogel y Astarloa, algo que le acerca más a nosotros y a nuestros problemas de hoy. Con Ulibarri es el pueblo quien entra decididamente en el movimiento cultural vasco y en particular, en la empresa de defender y promover la propia identidad y la propia lengua. (Akesolo 1976: 171. or.)

Akesolok adierazten digunaren arabera (1976: 171. or.), Astarloa eta Mogel elizgizon ziren heinean dedikatu ziren euskarara, euskararen misterioak miresten zituzten, baina bere ogibidea zela eta jorratu zuten, hala eta guztiz ere euren lana ez zen herri xehean sartzerik izan. Ulibarrik, ordea, herria eragin gura zuen, berak garaian argitaratu zituen lanak ikustea baino ez dugu, zelan herriarentzat eginak dauden: bere *egunaria* (1) herri xehearen (merkatariak, artisauak...) eguneroko zereginetan lagungarri izateko eginda dagoela dirudi –ez dut alerik aurkitu– (Gogora dezagun hurrengo urteetan jarraitzeko eskakizunak izan zituela hegoaldeko lau probintzietarik –bai, lau, Nafarroatik ere izan baitzituen eskakizunak–). Bestalde XIX. mendeko lehen herenean, Bilbon ia urtero euskaraz gabon kantak agertzen ziren, eta hauetako batzuk Ulibarriren kutsua daukatela diosku Akesolok (1962a: 32. or); berauen izenburuan erreparatuz Ulibarriren zantzua badagoela sumatzen da, neologismo ausartak agertzen baitira *Gaboneko osaste edo berba neurtuak* (1826ko gabon kantak), *GL*-an aurki dezakegun beste izenburuak legez: *Gomuta edo oroiza igaro diren gausa batzue-nac yakiteco*.

2.1 Ulibarri eta garaiko lexikografia lanak

Ulibarrik euskal eskolak sortzeko ideia izanik, pentsatu behar zuen zein gramatika eta zein hiztegi erabili behar zituzten irakasleek euskara garbi bat garatu eta irakasteko, eta garaian zeuden euskal liburu eta euskarari buruzko liburu gehienak biltzeko ahaleginetan egon zen gure okondoarra; ezagutzen zituen: Poza, Etxabe, *Bizkai'ko zozoa*

(1) Egunari eusquarazcoa erderazotik itzuliya. Vizcai, Guipuzcoa ta Arabaco Provinciaentzat. 1815'garren urteraco. Bilbaon

liburua (2), Larramendi, Astarloa, Lécluse, Astigarraga, Axular, Kardaberaz, Añibarro, Mogel, Frai Bartolome, Iztueta, Harizmendi (honen bertso batzuk aurkitu zituen Akesolok *GL-an*)... (Akesolo 1962c: 132. or).

Ulibarrik bere korrespondentzaren artean Mendizabal inprimatzailea zuen, eta elkarri igorritako gutunetan hainbat datu interesgarri aurkitzen ditugu. Ulibarrik Léclusen hiztegiaren prospektuak Bizkaian saltzeko ahaleginetan ikusten dugu; honela eskatzen dizkio Mendizabali:

Zuc emansidaten lau istokien berriac edo prospetoc estaukedaz kendu deuste guciac Ecautu edo Diputaduentzat nai neunke edo gure neunke gueyago or amabibat edo aldozunac (1827 / IX / 26). (3)

Bestalde Ulibarrik ere Léclusen hiztegiaren parte hartu zuen zeharka, gutunetan isurtzen denaren arabera:

Yakin ezazu Aite Larramendien liburu istokia daukedala. eta Dn Paulo en liburu Astarloa deritzana, icena, erderazco gastelanian da (Apologia Bascongada) Yesusen Laguneco Aita Cebastian Mendiburu eguiña Yesusen biotsaren Yaiera edo debocioscoa. Aita Larramendien gutun edo Carta batekin Mendiburuentzat. Oneic biar bozus Prancieraco estaucozu Aguindu baxen noz nai edo noz gurozun ezke.

(Ulibarrik Mendizabali 1827 / IX / 26).

Aita Larramendiren itzteguia, Dn Pedro Paulo Astarloa-ren (Apologia de la Lengua bascongada) eta Yesusen biotzaren Yaiera edo debocia Larramendi beraren gutun edo Cartarequin Mendiburuentzat, baldin Lecluse Yaunari bigalzeco biar badituz, [...] Manda-zayac emango dizu nere nola alaco Cartucho au amabi prospecto escatzen dizquidatzunaquin, eta berarekin nai nuque zuc ere bigalcea iru liburu gaizqui esaten nuan, lau liburuac bada izteguia bitan dago

(Mendizabalek Ulibarriri 1827 / X / 26).

Ikusten denez Ulibarrik eman zizkion Lécluse-ri *Hiztegi hirukoitza*, *Apologia de la Lengua Bascongada* eta *Jesusen Bihotzaren Devocia* gutxienez, eta *gutxienez* azpimarratzen dut, izan ere beste gutun batean (1827 / XI / 13) Ulibarrik Mendizabali esaten baitio *liburuchubati gueiago biralduten zaitu (sic.) Bizcaico euzkera garbiiari beste papel batzucac* eta Mendizabalen erantzunetik atera ditzakegu bai liburua eta baita paper batzuen etorria: liburua *Eguneroco lan on eta erregrubac, meza santuba ondo enzuteco: confesino eta comuninoya biar dan leguez eguiteco prestaera eta zucenbidia* da, Juan Jose Mogelek eginia; eta *papel batzucac* hauetako batzuk gorago aipaturiko Bilbon kaleratzen ziren gabon kantak direla iruditzen zait, Mendizabalek

(2) “Galizia’ko mosolloari erantzunez norbaitek XVII’garren gizaldian Madrillen ateratako liburua” (Akesolo 1962c: 132. or)

(3) Aipatzekoa da, Léclusen Prospektuan agertzen denaren arabera, Mendizabal zela hegoaldean zeukan saltzailea: “la subscripcion queda abierta: EN TOLOSA de Guipuzcoa, en la [Libreria] de Juan-Ignacio de MENDIZABAL” (Lakarra & Urgell 1988: 114. or.)

beste gutun batean dioskunaren arabera (4). Bestalde, lan honetarako dauzkadan apunteen artean, agertzen zait Zabala euskaltzaleak Larramendiren *HH* jaso zuela Tolosako Mendizabalengandik; ez da zentzugabea pentsatzea Ulibarriren alea izan daitekeela Mendizabalek utzirikoa.

Mendizabalek Ulibarriri Astigarragaren gramatika (1827ko argitaraldia?) bidaltzen diola esaten digu 1828 / VI / 6 ko gutunak; izan ere Léclusen gramatikaz hau dio: “La Gramatica de el he visto que esta esplicada en frances y por consiguiente es inserbible para nuestras escuelas.” Hala ere, azalpenen hizkuntza ez da arazo Ulibarrirentzat: “Monsiur Lecluse gramatica azalduarren Prancheseti artucot aren Yñardea (5) eta nic emango diot bere balio eta sariya” (1828 / VI / 8).

Ulibarririk 1884. urtean kaleratuko zen hiztegi baten ere parte hartu zuen zeharka. Aizkibelen *Diccionario Basco-Español-Euskeratik erderara biurtzeko itzurgia*-z ari naiz. Akesolok gure idazlearen biografiaz biltzen duenaren arabera, Aizkibeli zaran bat euskal liburu eman zizkion bere hiztegia egitearen truke, Aizkibelek ordaindu gura zizkion, baina Ulibarririk erantzun zuen: “Logrerua ez naiz ni izan iñoz; eta emoten deusat Verbatagui egiteagatik” (Akesolo, 1969a: 91. or.).

2.2. Ulibarriren lan ezezaguna: “Euskerasco ta Gaztelaniasco Itzurgia”

Ulibarri ez zen aritu euskal liburuak biltzen bakarrik, euskaraz idazteko prest zegoen gure gizona eta hainbat idazki utzi dizkigu, batzuk lan honetan zehar lehenago aipatu ditudanak eta orain aipatuko ditudan beste lanak: irain-bertso batzuk zirela eta, Otxandion egondako auzi batean Ulibarri aurkitzen dugu legearen lagun, hauek gaztelania-ra itzultzen epaileari, auzi-agirian ikusten den bezala (Altzola 1975); Abandoko udal agirien artean egindako apunteak (Akesolok dioskunaren arabera, Ulibarririk Abandoko udalean egin zuen lan eskribau legez eta orrialdeen hertzeetan zenbait ohar eta kexu euskaraz idatzi zituen)... Baina lan honetan bere behar anitzetan gutxien aipatutakoa aztertuko dugu, euskal lexikografiari egindako ekarpena.

Bere lanaren atal honetaz gehien arduratu zena M. B. Altzola izan zen. Ulibarriren sortzearen bigarren mendeurrena zela eta Okondon egin ziren hitzaldien artean Altzola jaunak Ulibarriren lanen gainean jarduten du. Bertan Ulibarririk euskal lexikografiari egindako ekarpenak aipatzen dizkigu lehenengo aldiz, *GL*-ko hiztegia aipatuz eta honekin batera berak Euskaltzaindiaren liburutegian aurkituriko hiz-

(4) (1827 / XI / 26): “Zure ill-onetako amaicagaren (sic?) egunean izkibatutaco gutun maitea nerequi-en artu nituan aita larramendiren iztegia, Astarloa Yakinsuac ipinitaco gure euskeraren berri gozoac, aita Mendiburuc Yesusaren biotzarentzaco eman cituan otoiz edo yaierac. *Egunoroco lan on ta erreguac. Gauongo osaste ederrac* eta beste gure izcuntzaco bicicay edo paperac” [etzana neurea].

(5) *Iñurdea* ere izan daiteke, baina ez dut aurkitu honelako hitzik inongo hiztegitan.

tegi txiker baten berri ere emanez. (6) Aipatu beharrean nago baita Patxi Galék 2000. urtean *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen Ulibarriren *GL*-ko hiztegiaren transkribapen eta ordenamendua ere (2003an Aunia Kultur elkarteak liburu legez argitaratua), aztertzaile eta filologoei lana hurbildu eta errazteagatik.

Euskaltzaindira hurbildu nintzen Altzolak aipatzen duen eskuizkribua ikustera eta bertan dago kontsultagai ABA – EUS (Ulibarri) signaturarekin. Egileak izenburua ipini zion liburu lepoan *Euskerasco ta Gaztel^o Iztegia* (7) [EGI]. Badirudi, liburuzainak esandakoaren arabera, inork ez duela haren gainean ezer egin Altzolaren garaitik, inor ez ziolako orain arte eskatu. Larruzko azala dauka eta garai batean itxirik mantentzeko lokarriak zeuzkan, nahiz eta gaur egun aurrealdeko goian dagoen kordoa baino ez geratu osorik. Orri-laurden tamaina dauka eta orri erabiliak 162 dira (Altzolak zenbakiak ipini zizkien orriei tinta urdinaz). Altzolak lehen orrian liburu honen balizko egilearen izena ipini zuen galdera ikurraz “Ulibarri-rena ?”

Bi norabideetako hiztegia egitea da liburu honen xedea; euskara-erdara atala 108. orria arte heltzen da eta 109. orrialdetik amaierara erdara-euskara ordena duen hiztegia hasten du. Erdara-euskara ordenaren gainean ezer gutxi dago esaterik, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzaren* laburpen bat baino ez dela dirudi eta; gainera AR izenburutxoraino baino ez du hartzen. Euskara-erdara, ordea, interesgarriena da gure azterketaren helburuetarako, izan ere 1800 hitz-sarrera baino gehiago daukan hiztegi baten aurrean baikaude (honen egileak sarrerak zenbatu zituen eta 1787-ra heltzen da; hala ere hainbat sarrera zenbaki barik eta tartekaturik aurkitzen ditugu hiztegi orrietan barna), baina euskal hitzen kopurua askoz handiagoa da, *Gutun-liburu*-ko hiztegian bezala sarrera bakarrean 2 edo 3 sinonimo eman baititzake. Sarreraren ordenari erreparatuz, ikus dezakegu hasieran ez duela ordena finkorik jarraitzen, baina 18. sarreratik aurrera AB ordenari jarraitzen dio, edo behintzat jarraitzen saiatzen da (Ikus eranskina).

Neuk ere, Altzolaren tesia segituz, Ulibarrirena dela proposatzen dut. Azkue bibliotekan egotea ez zaigu arraroa iruditu behar, *GL* ere Azkueren eskuetan egon baitzen honek Julio Urquijori eman aurretik. Hala ere, Lino Akesolok diosku (8), *GL*-aren arabera, Ulibarri etxearaketa bat jasan zuela Bilboko setioan eta bertan faltan bota zuela euskal hiztegi eskuizkribatu bat. Akesolok ez digu esaten *GL*-ko zein orrialdetan aurkitu zuen aipamen hau; liburua arakatu ostean, hiztegi

(6) Lehenago ere hiztegi honen gainean artikulatu txiki bat idatzi zuen *BAP*-en (Altzola 1974) eskuizkribu honen deskribapena emanez eta bere ustea azalduz: Ulibarrirena dela iruditzen zaio, nahiz eta ez izan Ulibarri famatu egin duen sinadurarik.

(7) Altzolak gaizki irakurria: “Euskerasco ta Gazte 1.^o Iztegia”.

(8) Akesolo 1975: X. or.

(9) *GL*-ko hitzen ondoko letra eta zenbakien azalpena lan honen *Sarreraren Lan moldeaz* atalean agertzen zaigu.

(10) *Euskerasco ta Gaztel^o Iztegiaren* hitzen ondoko zenbakiak egileak berak egindako zenbaketari dagokio.

baten galeraz aurkitu dudan erreferentzia bakarra 1835eko maiatzaren 12an dataturiko gutun batean aurkitzen da:

eukid[••] beste iztoki edo dicionario laburbat bere beste papel batzucaz erre-
cirien Celadoriac aracatu eusten eran eche gustie eta erabili gustiz charto
neuri [...] Orrila 12 1835 gⁿ Uⁿ

Ikusten denez, ez da aipatzen hiztegia eskuizkribua denik eta data ere ez dator bat setioarekin, hilabete bat beranduago izango baitzen (1835 / VI / 10); horregatik ez dirudi hau denik Akesolok aipatzen duen erreferentzia. Bestalde, datu aipagarria izan daiteke ondorioak ateratzeko orduan, gutun hau *GL*-ko hiztegiaren aurretik egotea. Esku artean dugun hiztegi hau baldin bada kendu ziotena, ezin izan zen *GL*-arekin batera Azkueren eskuetara heldu (horregatik ez zion Urquijori eman *GL*-arekin batera?). Azaleko azterketa bat egin diot eskuizkribu honi eta Larramendiren eragin erabatekoa antzematen zaio hiztegiari, *GL*-an agertzen denari gertatzen zaion legez; horregatik konparaketa hirukoitz bat egin dut: *GL*, Euskaltzaindiko *Euskerasco ta Gaztel^o Iztegia* eta Larramendiren *HH*. Hemengo taula honetan ikus ditzakegu azterketaren emaitza:

Gutun-Liburuko Hiztegia	Euskerasco ta Gaztel ^o Iztegia	Hiztegi Hirukoitza
Elehsacoari 01α (9) (ornamentos dela Yglesia)	Elehsacoari 8 (10)	–
Aitanagocia 01α (Abuelo)	Aitanagocia 1 (Abuelo)	Aitanagufia (<i>Abuelo</i>)
Amanagozia 01α (Abuela)	Amanagozia 2 (Abuela)	Amanagufia (<i>Abuela</i>)
Boneatu 01α / 02a (<i>rosolverse –sic–, disiparse, evaporarse</i>)	Boneatu 16 (<i>resolverse, diciparse –sic–</i>)	Bomeatu (<i>Resolverse diffiparse</i>)
Alditza 02α	Alditza 32	Aditza (<i>Verbo</i>)
Aita Donzuari dagona 01α (<i>Pontifical</i>)	Aita Donzuari dacana 12 (<i>Pontifical</i>)	Aita Santuari dagonana (<i>Pontifical</i>)
adigarria, adiguña... <i>admirable</i> 02β	Adigarria... <i>admirable</i> 30 Adiguña, Aditzea... <i>Audiencia</i> , / <i>el acto de / escuchar</i> 31	<i>Audiencia, el acto de escuchar...</i> Aditzea
–	Akelarguia 37 (<i>Capricornio</i>)	Aquelarguia (<i>Capricornio</i>)
Acopilatu, eraso, eraunsi 03α (<i>atacar al enemigo</i>)	Acopilatu, eraso, eraunsi 22 (<i>atacar al enemigo</i>)	Eraso, eraunsi, acopillatu (<i>Atacar al enemigo</i>)
Arrauna, arraunlea 01β / 04β (<i>Remero</i>)	Arraune, arraunlea 107 (<i>Romero</i>)	Arraunlea, arraundaria (<i>Remero</i>)
Alogadu 04α (<i>alquilar</i>)	Alogadu, echeratu 71 (<i>alquilar</i>)	Alquilatu, alogueratu, alocatu // alogadu (Sup) (<i>alquilar</i>)
Arraundu, arraunean 01β (<i>Remar</i>)	Arraundu 105 (<i>Remar</i>)	Arraundu, erraundu, arraunean egin (<i>Remar</i>)
Anunz, arauz 02β (<i>Acia aqui, Acia [a]lli</i>)	Anunz, arauz 97	Ononz, aronz; opunz, arunz (<i>Acia aqui, Acia alli</i>)
Arteztea, zuzendea 03α (<i>Dirección</i>)	Arteztea, zuzendea 123 (<i>Dirección</i>)	Zuzendea, arteztea (<i>Dirección</i>)
Zuzendea 29β (<i>Dirección</i>)	Zuzendea 1780 (<i>Dirección</i>)	Zuzendea, arteztea (<i>Dirección</i>)
Zucenlecu, ciurucha 29β (<i>Archivo</i>)	Zucenlecu, ciurucha 1781 (<i>Archivo</i>)	Zuzenlecu (<i>Archivo</i>)

Oharrak:

- *EGI*-ko eta *GL*-ko (01A) *Boneatu* berba gainetik zuzendurik dago, *GL*-ko kasuan <m> bat ipintzen zaio <n>aren gainean eta *EGI*-koan beste tontor bat jartzen zaio. Hala ere, aipatzekoa da *GL*-ko 02A-n (sarrera bera) ez dugula zuzendurik aurkitzen.
- *EGI*-ko *Alditzaren* kasuan, <l> letra zuzendurik daukagu, eta badirudi (ez nago ziur) arkatzez eginda dagoela (Ulibarriri egotzi ahal zaizkion zuzenketak tintaz eginda daude, eta Altzolaren apunteak boligrafoz: Azkuerena ote?).

Konparaketa egin ostean ondorio batzuetara heldu naiz. Hala ere, azaleko azterketa bat izan dela errepikatzen dut; hau dela eta, azterketa sakonago baten esperoan, egingo ditudan iruzkinak hipotesi mailan jarri behar dira, aztertzearen hastapenak baino ez dira eta.

Bi hiztegi hauen artean harreman bat ikusten da. Idazkera aldetik biek erabiltzen dute <hs> grafia / *ʃ* / txistukari frikari palatala adierazteko (*elehsacoari*), eta <c> <z> txandakatzea *aitanagocia* eta *amanagozia* berbetan. Euskalki edota hizkeran ere kide dira bi testuok; ikus dezagun bestela /nagufi/ formari egiten zaion tratamendua *aitanagocia* eta *amanagozia* berbetan (cf. Larramendik *-nagufi*) eta *anunz* / *araunz* aldaeren agerpena bi eskuizkributan egotea (cf. Larramendiren *ononz* ≈ *onunz* / *aronz* ≈ *arunz*). Beste kidetasun froga izango litzateke Larramendiren ‘Santu’ maileguaren tratamendua, gure bi testuek *Donzu* erabiltzen baitute itzultzeko. Bien harremana frogatzen akats edo zuzenketa amankomunak ere badauzkagu: *boneatu* (*bomeatu*-ren ordezt), *alditza* (*aditza*-ren ordezt), *Romero* (*Remero* beharrean)...

Hala eta guztiz ere, aldeak ere badaude gure bi hiztegien artean. *EGI*-k sarrera berriak dakartza: *akelargia* (*HH*-ren ildotik hau ere), adibidez. *GL*-an agertzen ez diren sinonimoak ikusten ditugu, adibidez *echeratu* forma ‘alquilar’ adieran. Hortaz aparte kritiko aurkitzen da *GL*-ko forma batzuekin; ordena aldatzen dio (ordena alfabetikora heltzeko ahaleginetan dugu Euskaltzaindikoan) eta akats bategatik ilun geratzen diren formak kentzen ditu. Honen adibide daukagu *arrauncan*. ‘Remar’ adieran Larramendik *arraundu*, *erraundu* eta *arrauncan* egin ematen dizkigu, baina Ulibarririk *GL*-an “arrauncan egin” idatzi beharrean *arrauncan* baino ez du idazten, bere aditz iziera ezkutatu, eta horregatik *EGI*-n ez da forma hau agertzen.

Datu guzti hauek kontuan hartuz eta ikerketa sakonago baten esperoan, hipotesi bi proposatu ditzakedala uste dut:

- 1.- *Euskal Gaztel*^o *Izteguia*-rekin *GL*-koa garbira pasatzen duela. 1835eko maiatzeko gutuna dela eta, ez nago ziur hau denik Akesoloren aipamenean jasotzen dena, gorago esan ditudan arrazoiak direla medio; izatekotan ere, kontutan hartu beharko genuke aurreko gutunetik gutun honetara urte beteko tartea dagoela. Honela, Ulibarririk bere hitzak bildu zituen 1834-1835eko tarte hartan, gero garbira pasatzeko eta orriak

erauzteko asmoarekin, baina giroa zela eta edo hiztegia galdu zuelako, agian, azkenean hau egin ez eta aurrean utzitako zati zuria erabili zuen beste gutun bat kopiatzeko.

2.- Bigarren hipotesirako geroago argumentatuko dudan datu baten berri eman behar dut, alegia, Ulibarrik ez zuela bere hiztegia (*GL*-koa) Larramendiren hiztegitik zuzenean kopiatu; badirudi liburuetatik hartzen zituela hitzak eta, bai fitxetan edota baita liburuan bertan ere, apuntatzen omen zituela esanahiak gero hiztegiara pasatzeko. Honela, 1834-35 tartean EGI hiztegitxoa egiteko beta izan zuen eta 1835. urtean kendu ziotenean, berriz ere hiztegia egiteko erabilitako ohar guztiak bildu omen zituen, oraingo honetan modu desordenatu eta baldarrago batean.

Hirugarren hipotesi bat ere proposatu dezakegu, aurreko biak uzartuz, eta esan Ulibarrik egindako lehenengo hiztegia (fitxetan bilduriko informazioaz) galdu omen zela 1835. urtean. Orduan fitxa hauek berriz bilduko zituzkeen *Gutun-liburuan* eta ordenatu beste hiztegitxo bat eginez: Euskaltzaindian aurki dezakeguna. Hala eta guztiz ere, hipotesi hauek berretsi edo ezeztatzeke *EGI*-ren, *GL*-aren eta Ulibarriren biografiaren azterketa oso eta sakon bat egin behar dugu, lan honen helmenetan aurkitzen ez den helburua.

Hiztegi honen helburuen berri Ulibarrik berak adierazten dizkigu hiztegiaren hasieran:

Herderiac calteac, erdaldun icazoletaco izkirac gaiti, dagos ilunduric Euzkeraren arguiiac. eta orregaiti, noa imintera, eta arguitutera, astu baxen len, icen puzca batzuc, aldean erabilteco estakienac liburuchu au, eta icazi eskero pizca oneic, dendatucoda icasten gueiego, ariketa eldu artian osorago Yakitera, biardana berba izkira batuco[...]

Euskararen argiak erakutsi nahi ditu eta hitz hauek ikasi ostean euskarra gehiago ikasteko gogoia piztu nahian dabil.

Nahiz eta hiztegi honen sorkuntzaren ganean duda asko egon, nik uste argi dago hiztegitxo honen egilea gure idazle arabarra dela. Hau dela eta, Ulibarriren lanen zerrendan beste izenburu bat jarri behar dugu: *Euskerasco ta Gaztel^o Iztegia*.

3. GUTUN LIBURUKO HIZTEGIA

3.1. *Deskribapena*

Aztertuko dudan hiztegia Jose Paulo Ulibarriren *Gutun-liburu*-an aurki dezakegu. Hiztegia liburu honen erdialdean agertzen da (283. orrialdean) eta 30 orrialde dauzka. Hala eta guztiz ere, Ulibarrik hitzak biltzen jarraitu zuen ondorengo gutun edota oroitzen bazterretan; ondorioz, orotara 37 orrialdetan aurki ditzakegu sarrerak.

Hiztegi honek euskara-erdara ordena dauka bere osotasunean. Bi zutabetan jorraturik dugu 30. orrialdean salbu, hau zutabe bakar batez osaturik baitago.

Hiztegia alfabetoaren araberako hurrenkeran antolatuturik dago, baina ordenamendu honetan hasierako letra baino ez du kontuan hartzen egileak, beste letretan ez du erreparatzen. Orotara 1800 bat sarre-ra dauzka, eta sarrera asko hainbat sinonimoz osatuta aurkitzen dugu.

Ulibarriren hiztegi hau zati bitan banatu dezakegu bertan ikusten diren zenbait ezaugarriengatik. Ulibarririk ez zuen hastapen batean izenburutxorik erabili letra ezberdinen hasiera markatzeko: hiztegiaren lehen izenburutxoa L letran aurkitzen dugu (hiztegiko 19. orrialdean). Zutabeak egiterako orduan ere ezberdintasunak antzematen dira hiztegian. Hasieran zutabeak banan-banan zihoazen; hots, 1. orrialdeko α zutabea egin ostean β zutabea egiten du, gero 2. orrialdeko α zutabea egiten du eta ondoren β egiten du (hau ikus dezakegu 10. orrialdeko B eta C letren aldaketan); G letran, ordea, bi zutabeak batera doaz eta I izenburutxoa zutabetik kanpo agertzen da (*GL*-ko hiztegiaren 17. orrialdean). Banaketa molde hau M letrarekin amaitzen da eta hasieran erabilitako modua berreskuratzen du. Eransketa kopurua ere aldatzen da hiztegian barrena: hasierako letretan askoz ere eransketa gehiago daude sarreraren artean amaieran baino. Iturrien aldetik aldaketarik nabaritu ez badut ere, hauen kokapena aldatzen du hasierako hizkietatik amaierakoetara (Ulibarriren lan egiteko moduan ikusiko ditugu honen nondik norakoak).

3.2 Iturriak

Argi ikusten denez, Ulibarririk Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* darabil bere osotasunean; gutxienez erdal itzulpenak emateko garaian *HH*-ari so eginez dabil. Hala eta guztiz ere, aipatu behar dut (gero arrazoietan sakonduko dut) *HH*-ren eranskinetako hitz asko agertzen dituela jarraian, kopia hutsa balitz bezala.

Ulibarriri beti egotzi zaio oso Larramendizale izan zela eta agian hau izan da euskalarien partetik bere obrak pairatu duen baztertzearren arrazoietakoa bat. Edonola ere, Ulibarririk ez zuen *HH* bakarrik erabili, bere hiztegian gutxienez beste hiru iturri aurkitu ditudalakoan bainago. Lehenengoa Juan Antonio Mogelek 1802. urtean kaleraturiko *Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos* liburuaren amaieran dagoen hiztegitxoa da (*INDICE. / De algunas voces, cuyo significado / le ignoran varios*). Iturri hau argi asko ikusten da A letran. Bertan *Indice* hau zatiturik agertzen zaigu; lehenengo zatia *GL*-ko 1. orrialdeko β zutabearen dugu eta hiru hitzez osatua dago: *aditzaña*, *aberekeria* (11) eta *arazoa*. Bigarren zatia 3. orrialdean aurkitzen da α zutabearen amaieran eta

(11) Hemen Ulibarri Mogelengandik aldentzen da, honek *aberetasun* baitu; halaz ere, eta Mogelek dakarkigun 'brutalidad' esanahiari erreparatuz, ziurrenik Ulibarririk berba hau erdaraz duen zentzu txarra islatu nahi zuen eta *-tasun* atzizki "neutroa" *-keria* atzizkiak trukatu zuen.

bertan Mogelek A letrarekin dakartzan beste berbak ekartzen ditu. Aztertu dudan beste letran (T) ere Mogelen liburu honetako hiztegioko berbak dakartza (27. orrialdea ß zutabea)

Versiones Bascongadas		Gutun-liburua	
<i>1. orrialdeko ß zutabea</i>			
Aditzaña	<i>Tribunal de Audiencia</i>	Aditzaña	<i>Tribunal de Audiencia</i>
Aberetasun	<i>Brutalidad</i>	Aberekeria	<i>Brutalidad</i>
Arazoa	<i>Ocupacion, faena</i>	Arazoa	<i>Ocupacion, faena</i>
<i>3. orrialdeko a zutabea</i>			
Aienatu	<i>Aiyyentar</i>	Aienatu	<i>Auyentar</i>
Azartu, aizartu	<i>Atreverse</i>	Aizartu (12), aizartu	<i>Atreverse</i>
Aizartua	<i>Atrevido</i>	Aizatua	<i>Atrevido</i>
Aizartasuna	<i>Atrevimiento, descoco (sic)</i>	Aizartasuna	<i>Atrevimiento, descoco (sic)</i>
Arrotza	<i>Extranjero</i>	Arrotza	<i>Extranjero</i>
Azcorra	<i>Animoso, valiente</i>	Azcorra	<i>Animoso, valiente</i>
Auquera	<i>Eleccion</i>	Aukera	<i>Eleccion</i>
Aldra, pilloa, taldea	<i>Multitud, monton</i>	Aldra, pilloa, taldea	<i>Multitud, monton</i>
Autu, autatu	<i>Elegir</i>	Autu, utatu	<i>Elegir</i>
Aupada	<i>Clamor de desafio à la pelea</i>	Aupada	<i>Pelea</i>
Aupatu	<i>Clamorean à ella</i>	Aupatu	<i>Clamorean à ella</i>
Aulquia	<i>Asiento, se aplica à la Silla del Tribunal, ò à su autoridad</i>	Aulkia	<i>Asiento, se aplica à la Silla del Tribunal, ò à su autoridad</i>

Ulibarriren bigarren iturria zehaztea ez da hain erraza, testuetan ez dugu aurkitzen eta; hiztegiari dariona kontuan hartuz, Ulibarrik bere herriko hizkeratik jasoriko berbak ere ekartzen dizkigula iruditzen zait. *Acia aqui, aci[a] alli* esanahiarekin (Larramendiren *HH*-tik ateratako erdal ordaina) dakarzkigun formak *-Anunz, aranz-* ez dira *HH*-an agertzen (bertan *ononz, aronz* eta *onunz, arunz* aldaerak datoz) eta oso hitz arruntak izateak pentsarazten dit Okondon edo Abandon erabiltzen ziren formak direla. Beste froga bat izan daiteke ‘abuelo’ eta ‘abuela’ ematen dizkigun bi berba: *aiteobe* eta *Ama Andrea*. Lehenengoaz *OEH*-ak diosku Bizkai aldeko forma dela, eta bigarrenaz ez da ezer agertzen. Gaitzerdi, Aranzadi zientzia elkarteko etnologia mintegiak egindako *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoan [EAEL]* aurkitu nituen berba hauei buruzko datu interesgarriak. Orozkon eta Zeberion egindako galdeketa ‘Abuelo’-ren ordainean *Aitue* (13) ematen dute eta ‘Abuela’-rean *amandre*; honengatik, Okondon edo Abandon ere forma hauek erabiltzen zirela suposa dezakegu. Ideia hau baieztatzen duen beste adibide bat hiztegioko 5. orrial-

(12) Badirudi *i* hau geroago idatzi zuela

(13) *Aitobe* egongo da sakonean: / *ajtobe* / > [*ajtuße*] > [*aitue*]

deko “Ausina, asune = ortiga” sarrerak ematen digu. Sarrera honen iturria Larramendiren eranskina da, baina bertan Larramendik *ausina* forma baino ez dakar. Litekeena da, sarrera hau kopiatzean, Ulibarrik bere herriko *asune* formaz oroitzea eta bestearen ondoan ipintzea. Interesgarria da forma hau agertzea, Okondoko euskararen ezaugarri fonologiko bat erakusten baitigu: /a/ ixten da, [e] moduan ahoskatuz, aurreko bokal itxiaren eraginez -Laudion ere gertatzen ei zen fenomenoa (Urkijo: 1994: 45.or.)-. *Abarra* forma ere agertzen da ‘rama’ adierarekin eta *HH*-an ez dator.

Hirugarren iturri legez Ulibarriren beraren neologismoak edo ‘esanahi zabaltzea’ aipatu beharrean nago. Batzuetan Ulibarrik Larramendiren aldakia bere euskarara biurtzen du: adib. ‘Abade aita’ ematen du *HH*-ko ‘Apez aita’-ren kalko eginez. Beste batzuetan maileru baten euskal ordain bat ematen du *HH*-ren moldean (adib. ‘Autorco’ ematen du ‘confesiosco’ orde). “Esanahi zabaltzea” deitu dudanaren adibide izan daiteke ‘donzu’ forma. Garaiko beste egileek (Larramendi barne) *dichosoren* adieran dakarte, eta Ulibarrik *santo* formara hedatzen du.

Herrikoiak izan daitezkeen beste berba batzuk ere badaude hiztegian: *Elehsakoari* (= ‘ornamentos de la Yglesia’) eta *bizkar mamina* (= ‘solomo’), adibidez.

Beste berba batzuen iturria ilun geratu zait, hau dela eta hemen ipiniko ditut hiztegian datozen moduan bakoitzaren gainean daturen bat gehituz:

Ulibarriren sarrera		Oharrak
Aditu, enzun, istu	sentir, oir	Lehenengo biak <i>HH</i> -ean datoz, baina hirugarrenaren gainean ez dut ezer aurkitu
Adigarri, adiguña	admirable	‘adiguña’ berbaz ez dut ezer aurkitu eta ‘adigarri’-k Iztuetaren <i>Corografiara</i> eraman nau, baina hau liburua 1847. urtean kaleratu zen.
Aizakiiac	Pretestos	Larramendik singularrean dakar, horregatik liburu batetik aterata dagoela deritzot, baina zein liburutik?
Autasiac	Elegidos	Idem
Aupatutenda	Proponer	<i>HH</i> -k <i>gogartu</i> dakar esanahi horrekin. Ikusten denez adizki jokatu bat da, agian <i>aipaturen</i> bizkaierazko aldakia (cf. <i>autortu / aitortu</i>)? Esanahi honekin aurkitu dudana aipamen bakarra Léclusen hiztegia da: <i>aipatu = proposer</i>
Askindatzea	Cumplimiento	<i>HH</i> -k ‘ <i>cumplir con alguno</i> ’ esanahian ‘ <i>afquidatu</i> ’ dakar eta ‘askidatze’ formarik ez dut aurkitu <i>OEH</i> -an
Antsi izan	Conveniente	<i>HH</i> -k dakar ‘importar, se hace tambien con <i>antfi izan</i> ’ eta ‘no importa <i>ez da antsi</i> ’
Azpildu	Ropa	<i>HH</i> -k ‘repulgar, hacer el dobladillo a la ropa’ legez dakar. Ulibarrik erdal ordaina moztu zuelakoan nago, <i>HH</i> -ko esana hiaren azkeneko hitza baino ez zuen kopiatu, baina ziur ez nagoenez hemen jartzea iritzi dut.
Adreztu	Remendar	<i>HH</i> -k ‘arreglar, aderezar, reglar’ esanguran dakar, ‘remendar’ legez Añibarrok dakar bere <i>Voces Bascogudas</i> eskuizkri buan, baina ez dut uste Ulibarrik hortik atera zuenik.

3.3 Ulibarrrik erabiliriko lan-moldeaz

Iturrien azterketa egiten nenbilela, Ulibarriren lan moldea aztertze-ari ekin nion, izan ere, A letrak eta T letrak ezberdin tratatuak daude.

XVIII. mendetik aurrera hiztegiak egiteko momentuan *cedula* deitzen ziren fitxetaz laguntzen ziren (Urgell 1998: 125. or.). Ez nuke esango Ulibarrrik esplizituki fitxa hauek erabili zituela, baina bai kasu askotan liburuetan aurkitzen zituen hitzak papertxoetan biltzen zituela (agian liburu beraren ertzetan apuntatzen zituen esangurak); izan ere, hainbat kasutan pluralean ematen dizkigu, bai hitzak eta baita esanahiak berak ere: adib. *Autasiac = Elegidos (3β)* edo *aizakiiac = pretestos (sic.) (3β)*; are gehiago, erabili dudan laginean aditz forma bat laguntzaile eta guzti ematen digu, nahiz eta bere esangura gaztelaniaz infinitiboaz eman: *aupatutenda = proponer (3β)*. Egiten dituen zenbait akatsek ere erakusten digute hitz guztiak *HH*-tik zuzenean hartu ez zituela. Ulibarrrik momentu batean (3α) sarrera hau dakarkigu:

Aspesa, enura, cadura, / canyura, icerdia.....Zudar

Hala ere Larramendik hau dauka:

Duda *Aſpeſa, enurá, cadura, canyura*

Honen antzeko beste akats bat ikus dezakegu beste sarrera batean. 2α zutabearen dago eta bertan hau irakurri dezakegu: *Autorco, goarpea, isil premia eunkia.....Sigilo dela confension(sic)*. Lehenengo bi formen iturria (*autorco* eta *goarpe*-ren artean dagoen koma akats bat da) *Hiztegi Hirukoitza* dugu, baina hirugarrenak ez du hau esan nahi, *siglo* baino (*HH*-ean hau ere).

Ulibarriren akatsek hau esaten didate: Ulibarrrik liburu, panfleto edo dena delako batean *Aspesa, enura, cadura* edo *canyura* aurkitu zuen; orduan papertxo baten edo liburuaren hertzetan hitzaren sinonimo edo esanahia apuntatu zituen. Ondoren, hiztegia atontzera zihoala *Duda* txarto irakurri eta *Zudar* ulertu zuen; ustezko oharrean zeukan euskal berbak izkiriatu ostean konturatu zen ez zegoela berak erabiltzen zuen *icardi* eta gehitu zuen, sarrera hau sortuz. Bigarren adibidean ere antzekoa gertatzen da: Ulibarrrik *eunki = siglo* apuntatuko zuen lekuren batean eta hiztegia egiten zebilenean *siglo* ulertu beharrean *sigilo* ulertu zuen eta jadanik bazeukan sarreraren kokatu zuen. Azalpen honekin hainbat sarrera errepikatzeke zergatia azaltzen delakoan nago: Ulibarrrik birritan kopiatu zuen paper bera edota liburu ezberdinetan aurkitu zuen berba bera edo bere sinonimoa.

Baina hau ez da Ulibarrrik darabilen metodo bakarra. Hiztegiak egiteko beste metodo bat existitzen da: aurretik egindako hiztegi bat hartu eta bere osotasunean edo zatika kopiatu edo iraultzean datzana. Ulibarrrik metodo hau ere erabili zuen, bai gorago aipatu dudan Mogelen liburuko hiztegiarekin eta baita Larramendiren eranskinarekin ere. A letraren eranskin iraulia 4α zutabearen bigarren herenean hasten da gutxi gorabehera eta bosgarren orrialdeko β zutabearen erdian amaitzen da. Zerrenda luze horren hitz tarteetan beste sarrera batzuk sartu zituenez apur bat ezkutaturik dago, baina erdal kideei

erreparatzen badiegu iturriaren ordena alfabetiko zehatza antzematen da (gogora dezagun *HH*-k gaztelera-euskara ordena duela). Hau ikus-teko 4 α zutabeko hitzak ekarriko ditut hona, alboan *HH*-ko eranskina erakutsiz:

Gutun-liburuko hiztegia (4 β)		Larramendiren eranskina	
<i>Asacatu, neitu</i>	‘Acabarse’	Acabarse	<i>Afacatu, neitu</i>
<i>Apucatu</i>	‘Acaecer’	Acaecer	<i>Apucatu</i>
<i>Aurizkitu</i>	‘Alcalcar’	Acalcar	<i>Aurizquitu</i>
<i>Antsiatu</i>	‘Afligir’	Afligir	<i>Aufiatu</i>
<i>Ayubea</i>	‘Alarido’	Alarido	<i>Ayubia</i>
<i>Amamerua</i>	‘Alguacil’	Alguacil	<i>Amamerua</i>
<i>Alogadu</i>	‘Alquiler’	Alquiler	<i>Alogadu</i>
<i>Azama</i>	‘Ama de cria’	Ama de criar	<i>Azama</i>
<i>Aurtiki, Urtegui</i>	‘Arroyar’	Arrojar	<i>Aurtiqui, Urtigui</i>
<i>Ausartatu</i>	‘Atreverse’	Atreverse	<i>Azartu</i> <i>Ausartatu (14)</i>
<i>Azartu, azarria</i>	‘Atrevido’	Atrevido	<i>Azarria</i>
<i>Azarcunza</i>	‘Atrevimiento’	Atrevimiento	<i>Azarcunza</i>
<i>Arrastelua</i>	‘Bieldo’	Bieldo	<i>Arrastelua</i>
<i>Aho paldiac</i>	‘Bocanadas’	Bocanadas	<i>Ahopaldiac</i>
<i>Ahamena</i>	‘Bocado’	Bocado	<i>Ahamena</i>
<i>Ardancoya</i>	‘Borracho, vinolento’	Borracho, vinolento	<i>Ardancoya</i>

Gorago, hiztegiaren deskribapena egin dudanean, gai bat zintzilik utzi dut: iturrien erabilera delakoa; zorra kitatzeko garaia heldu zait jadanik. A letran, lehen aipatu dudanean bezala, Larramendiren *Eranskinetik* ateratako zerrenda 4. orrialdean agertzen da, eta Mogelen liburutik ateratakoa (hau ere lehenago aipatu dut) 3. orrialdean dago gehienbat; hau da, lanaren erdialdean gutxi gorabehera eta bi iturri hauen artean bestelako sarrerak sartzen dizkigu. T letrarekin ordea, beste ordena bat darabil: lehenengo eranskinetik ateratako hitzak dakartza, ondoren Mogelen liburutik ateratakoak eta azkenik bestelako hitzak dakartzkigu.

3.4 Iturrien eta Ulibarriren hiztegiaren arteko aldeak

Ulibarrik orokorrean *HH* erabili zuela esan badugu ere, ez zuen hartu Larramendiren hiztegia bere horretan eta kopiatu, hainbat gauza kendu, gehitu edo aldatzen zituen bere gustuen arabera. Egiten duen aldaketa garrantzitsu bat Larramendiren hiztegiko maileguen ezabapena da. Larramendik gaztelaratik harturiko maileguak sartu zituen

(14) Bigarren ordain hau *Atrevimiento* sarreraren ondoren aurkitzen dugu, *Atreverse* sarrerarekin hau ere

bere hiztegian; Ulibarrik, hauek ikustean modu sistematiko batean kentzen ditu eta euskara “jatorrean” daudenak baino ez ditu ezartzen; honela, Ulibarrik ez dakartza *promestu*, *sentitu*, *erregistratu*, *errenuncia*... bezalako formak. Baina ez da bakarrik hitzak kentzeaz konformatzen eta Larramendik mailegu batez osaturiko *esanahi perifrastikoak* dakartzanean Ulibarrik mailegua “euskaratzen” digu: adib. Larramendik *Aita Santua*... dakar pare bat sarreratan eta Ulibarrik *Santu* berba erromanikoa *Donzu* formarekin ematen digu –*Aita Donzuen goyendea* (1 α) eta *Aita Donzuari dagona* (1 α) –; beste sarre-
ra batean Larramendik *Confesjioco* dakar elizaren sakramentuaz mintzatzeko eta Ulibarrik itzultzen digu *Autorco* legez (in 2 α). Larramendiren garbizaletasuna baino handiagoa da Ulibarrik daukana, edo gutxienez hori leporatu ahal zaio hemen ikusitakoa kontutan hartuz. Hala ere, Ulibarriren hiztegi hau euskal testuetan lagungarri izateko egin zuelakoan nago, horregatik gazteleraren forma “bera” ez zuen beharrezkoa ikusten, ondo uler zitzakeen eta.

Bestela ere, Ulibarriren hiztegia Larramendirenetik ez da bakarrik garbizaletasunean ezberdintzen, askotan Ulibarriren mintza moldearen ezaugarriak ematen dizkigu: Larramendiren hitzei bere hizkelgiaren fonologi sistema ezarriz, ahozko beste aldaerak eskainiz edota *iturri* atalean aipatu dudak bezala bestelako berbak sartuz.

Larramendik hainbat hitzetan dakarren [sudurkari + afrikatu] hots segida Ulibarrik frikariz adierazten ditu (*Anza*, *ondiansua*, *ansiatu*); hauekin batera sar dezakegu *santu* forma “itzultzeko” darabilen *Donzu* ere. Mitxelenak (1961) ozenen ondoren euskalki ia guztiak gaur egun egiten duten afrikatzeaz diosku ez dela beti honela izan eta adibidetzat Landucciren hiztegia eta Leizarragaren adibideak darakuskiguz. Hau kontuan hartuz, gerta zitekeen Ulibarriren hizkeran forma zaharrak arkaismo legez gorde izana. Ulibarriren gutunetan ikus ditzakegu halaber *eranzun* bezalako formak -cf. Laudioko doktrineta (1828, 1858) *enzun* eta *eranzun* formekin (Urkijo 1994) -.

Ulibarrik bere hizkeraren bokal eufoniaren testigantzak ematen dizkigu: *abadia* (HH *abadea*), *adezkidia* (HH *adifquidea*), *araudia* (HH *araudea*) bezalako hitzetan ikus dezakegu *-e + a > -ia* aldaketa egiten duela. Behin *-a + a > -ia* eufonia izan daitekeena antzematen zaio (Lar.: *arauquida* vs. Ulib.: *araukidia*); hala ere, txandakatze hau azaltzeko beste modu bat ere egon daiteke: Ulibarrik *-kide + a* ulertu zuela, orduan lehen aipaturiko *-e + a > -ia* adibidearekin topo egingo genuke. Kasu biek Laudioko doktrineta ere isla daukate (Urkijo 1994: 33. or.). Honekin batera gorago aipatu dudak beste fenomeno bat ere ekarri nahi nuke hona: / a /-ren ixtea [e] legez ahoskatuz aurreko bokal itxiaren eraginez: hau ikus dezakegu *asune* eta *icen* ‘izan’ formetan adibidez.

Fonologiatik atera gabe, dakusakegun beste fenomeno bat txistukari-
ren berdintzea da. Joseba Lakarrak RS (1996) liburuko edizio kritikoan arrazoitzen duen bezala z ~ s = s berdintzea Bilbo aldetik ekial-
dera zabaldu zen XVI. mende bukaeratik aurrera, eta nabaritzen da

Ulibarrik jadanik ez dituela bereizten. Larramendik bere hiztegian euskararen bi frikariak islatzen dizkigu, baina Ulibarrik idaztean egiten dituen akatsek salatzen dute bereizten ez zituela, e.g. *aldatja* (Lar.) vs. *aldatza* (Ulib.); *afiatu* vs. *aztiatu*.

Fonetika kontuekin jarraituz, Ulibarrik Larramendiren formak aldatzeko joera ere badu, bere ingurukoak izan liratekeen formak ipiniz. Forma hauek bi talde nagusitan bana ditzakegu: a) bokal itxien irekitzea eta b) herskari ahostun eta ahoskabeen arteko aldeak.

Larramendiren hiztegian bokal itxi batez agertzen diren berba batzuk Ulibarrik erdiko bokalez ematen dizkigu: *-nagozi* (lar. *-nagufi*), *erripa* (vs. *irripa*), *adezkidia* (vs. *adisquidea*), *aurdegui* / *aurdeguitu* (vs. *aurdigui* / *aurdiguitu*), *gorgarria* (vs. *gurgarria*), *almotea* (vs. *almutea*). Kontrako adibideak ere ematen ditu, hots, bokal irekien ixtea, baina arrazoi fonetiko ageriko barik: *Esyala* (vs. *afyala*), *aguiricatu* (vs. *aguiracatu*) –agian kasu honetan ondoko palatalen (< i > eta < y >) eraginez gertatzen da ixtea-. Beste kasu bat izan daiteke ‘aldecoya’ forma (vs. ‘aldacoya’), hala ere azken kasu hau kopiatzean egindako oharkabeko akatsa izateko posibilitate gehiago dauzka.

Ulibarrik herskari ahoskabeen orde ahostunak ipintzen dituela badirudi. Honen adibide gisa, honako forma hau aurkitu dut: ‘aurtegui’ (vs. ‘aurdiguia’). Honekin batera beste aldaera bat ere badago: ‘artezkidatu’ (vs. ‘artezguitatu’), alegia; baina kasu honetan kopiatze akatsa izan daiteke.

Lan honetan Ulibarriren lexikografia beharrak aztertu dira eta orain, labur bada ere, aztertutakoaren emaitzak ikusiko ditugu. Orokorrean bi zati egin genezake lortutako lorpenekin.

Lehenengo zatian Azkue bibliotekan aurkitzen den “*Euskerasco ta Gaztel^o [Gaztelaniasco] Iztegia*” aztertu dugu. Ulibarriren *Gutun-liburu*-an aurkitzen den hiztegiarekin eta Larramendiren *HH*-arekin konparaketa eginaz, konturatu gara erlazio bat badagoela *GL*-aren eta *EGI*-ren artean, Altzola jaunak 1974an esaten ziguna berretsiz.

Bigarren zatian *Gutun-liburu*-an dagoen hiztegiak jardun dugu eta hau egiteko erabilitako iturri batzuk aurkitu ditugu. Ulibarriren lanak aipatzen zirenean eta bere hiztegiak jarduten zenean iturritzat *Hiztegi Hirukoitza* aipatzen da; eta arrazoiz esaten bada ere, ikusi dugu hau ez zela erabilitako iturri bakarra, Juan Antonio Mogelen *Versiones Bascongadas* erabili baitzuen eta bere errepertorioko hainbat berba ere agertzen baitira. Amaitzeko, Ulibarriren mintzamoldearen hainbat ezaugarri antzematen ahalegindu gara *Hiztegi Hirukoitza* eta *GL*-ko hiztegiaren arteko aldeak erreparatuz.

4. ONDORIOAK

5. BIBLIOGRAFIA

5.1 *Laburdurak*:

- *BRSBAP*: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
- *ASJU*: Anuario del Seminario de filología vasca “Julio de Urquijo”
- *BISS*: Boletín de la Institución Sancho el Sabio
- AKESOLO, Lino: “Jose Paulo de Ulibarri Galíndez (1775-1847)”, *BRSVAP*, XVIII, 1962a, 25-35. or.
- _____: “Algo más sobre el escritor Ulibarri”, *BRSVAP*, XVIII, 1962b, 415-421. or.
- _____: “Euskal-esnale ta euskal-idazle: Yose Paulo Ulibarri, Okendoko semea”, *Olerti*, 4, 1962c, 121-142. or.
- _____: “Escritor vasco y gran campeón en la lucha por su lengua vernácula. El alavés Jose Paulo de Ulibarri y Galíndez (1775-1847)”, *BISS*, XIII, 1969a. 81-95. or.
- _____: “Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri” en ULIBARRI, Jose Paulo: *Gutun-liburua*, Arabako foru aldundia, Vitoria-Gasteiz, 1823 [faksimilean argitaratua 1975.ean]
- _____: “Jose Paulo de Ulibarri y Galíndez (1775-1847) Actualidad de su obra” *Euskera*, XXI, 1976, 170-176. or.
- ALTZOLA, M-B: “Euskal Bibliographiarako oarrak. Ulibarriren *Euskerasko ta gazte 1º (sic.) Iztegia* (argitaratu bakoa)”, *BRSVAP*, XXX-1 / 2, 1974, 266-268. or.
- _____: “Otxandioko irain-idaztia Euskal Bertsuetan: Ulibarriren Jose Paulok gaztelera erderatua”, *BRSVAP*, XXXI, 1975, 279-280. or.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA: *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa [EAEL]*. (2 liburuki), Muniberen eranskina, Donostia, 1983/1990.
- BARRENENGOA, Federiko: *Onomástica de la tierra de Ayala I –patronímica-*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 1988.
- GALÉ, Patxi: “Jose Paulo Ulibarri Galíndez *Hiztegia*”, *Euskera*, XLV-3, 2000, 1021-1112. or.
- _____: *Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) euskal hiztegia*. Aunia Kultura etxea, Luiaondo, 2003.
- KNÖRR, Henrike: *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Álava. Arabako euskarari buruz jakin behar dena*, Caja Vital, Vitoria-Gasteiz, 1998.
- _____ & ZUAZO, Koldo. : *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak. El euskara alavés. Estudios y textos*, Eusko Jaurilaritza, Vitoria-Gasteiz, 1998.

- LAKARRA, Joseba: *Refranes y Sentencias (1596) Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1996.
- _____ & URGELL, Blanka: “Lécluse-ren hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (II)”, *ASJU*, XXII-1, 1988, 99-211. orr.
- LARRAMENDI, Manuel: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin*, Txertoa, Donostia, 1745 [faksimilean argitaratua 1984.ean].
- MITXELENA, Koldo: *Fonética histórica vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1961 [3. edizioa 1985.ean].
- MOGEL, Juan Antonio: *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas*, Ikeritz, Zarautz, 1802 [faksimilean argitaratua 1999.ean].
- ULIBARRI, Jose Paulo: *Gutun-liburua*, Arabako foru aldundia, Vitoria-Gasteiz, 1823 [faksimilean argitaratua 1975.ean].
- URGELL, Blanka: “Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (I)” *ASJU*, XXXII-1, 1998, 109-163. orr.
- URKIJO, Natxo: *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*. Udako Euskal Unibertsitatea, s. l., 1994.